



BARREN
TOKIKOM

Ingurune digitalean ere, euskara, bestela ez gara

PuntuEUS, Elgoibarren



matricúlate en  euskara praktikas
hasta el 28 de septiembre

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin.
Aprende euskara, con la mejor compañía.
Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta bekak, udalari esker.



Elgoibarko AEK euskaltegia
Gabriel Kurutzelaegi, 10
(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

607 601 423 elgoibar@aek.eus


ESKAINNTZA

Betaurreko jakin batzuetan,
kontsultatu baldintzak

Back to School

Back to Work

2021-09-01
2021-09-30



Uzuri  optika audio

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Autobusa

klimatikoa aldaraziz eta giza-dia hil ala biziko ataka histori-koan jarritz.

Zientzialarien gaiaren larritasuna-ren inguruko ohartarazpenak aspaldi-koak dira. Petrolio, ikatz eta gasaren multinazional kriminalek aspalditik dakite norantz goazen. Eta entzun nahi izan duten politikariek ere bai (2015koa da Parisako akordioa; 1997koa Kiotoko proto-koloa; eta abar).

Bitartean, pandemiak pandemia, errekorretik errekorra goaz: izutzeko moduko uholde eta suteak nonahi, polo-etako izotzak urtzen eta urtzen, klase guztietako ekaitz eta muturreko feno-meno klimatikoak han eta hemen, tenpe-ratura itogarriak... eta nola ez, CO2 isurketen bolumena gora eta gora urtero,

eta multinazional hauen etekinak ere gora eta gora urtero. Bejondeiela!

Jendez gainezka, amildegirantz zuzen, toperaino azeleratuz garamatzen autobusaren irudia oso erreala da eta galderak ere argiak dira. Noiz haserretu behar gara benetan? Noiz altxatuko (egiazko xiberutarrak) eta gidaria postu-tik kenduko kontrola geure gain hartzeko (tirano arrotzen hiltzeko)?

Erregai fosilekiko dependentzia erro-tik arintzea da soluzio bakarra. Aldaketa handiak ikusi beharko genituzke, ongibi-dean, epe motzean, gure egunerokoan. Pentsa gaur zenbaterainokoa den gure petroleoaren eta gasaren dependentzia alor guztietan.

Ez ahaztu ordea: alternatiba iluna-go da, askoz.

Gaia aspalditik ezaguna dugun garren ukaezina da azken bola-dan bultzada handia hartu duela. Aldaketa klimatikoaz dihardut.

Duela 270 urte inguru hasi zen iraul-tza industrialia Inglateran. Lau belau-naldi eskasetan Lurreko erregai fosilen (ikatz, petrolio, gasa) erretserbak ia agortu ditugu (kapitalismoak), eta bide batez, atmosferara isuritako CO₂ kan-titate neurrigabeak honen batezbesteko tenperatura igoarazi du, Lurreko sistema

“Errekorretik errekorra goaz: izutzeko moduko uholde eta suteak nonahi, poloetako izotzak urtzen, klase guztietako ekaitz eta muturreko fenomenoak han eta hemen...”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► CAMINHO LONGE

Hilaren 22an, asteazkena, eta Ongarri eta Sareren elkarlanaren eskutik *Caminho Longe* filma ikusi ahalko dugu Herriko Antzokian, gaueko 21:00etan. Alfonso Etxegarai eta bere bikotekidearen Euskal Herrirako itzulua ikusi ahalko dugu filmean. 33 urtez Sao Tomen deportatuta egon zenaren bizitza.

Bizi izan dugun gatazkak ondorio asko utzi ditu: biktimak, presoak, atxilotuak, torturatuak eta, besteak beste, Euskal Herria utzi behar izan zutenak. Iheslari politiko horiek egoera desberdinak bizi dituzte: Frantziako estatuak munduan zehar barreiatu zituen euskaldun deportatuak (Alfonso Etxegarai kasu), edota, besterik gabe, beren etxea utzi eta alde egin behar izan zutenak. Hauetako bat da Josu Lariz elgoibartarra. 1984an Elgoibar utzi eta Ipar Euskal Herrian exiliatu zen. Handik gutxira Uruguaira joan zen. Han atxilotu eta Argentinara eraman zuten, baina, azkenean, libre utzi zuten. Gaur egun Montevideon bizi da, bere bigarren etxea duen Uruguain. Oraindik ere

debekatua du Euskal Herrira etortzea.

Caminho Longe film-dokumentalak orain arte dezente ezezaguna izan den errealitate bat ulertzen lagunduko digu. Gonbidatuta zaudete!

Sare Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datoren eskutitzik argitaratuko.



Zorione Gorostiza Etxaniz

2021eko irailaren 15ean hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.**

Etxekoak



Elgoibarko Memoriaren Ibilbidearen zati bat aurkeztu eta 36ko gerran Zirardamendin hildakoak omenduko dituzte domekan

Zirardamendin 36ko gerran hildako gudari eta milizianoak oroitzeko urtero egin ohi den ekitaldiaren barruan, Elgoibarko Memoriaren Ibilbidearen zati bat aurkeztuko dute domekan, hilaren 19an, Aiastian (frontoian, 11:00etan). Ekitaldian izango dira, besteak beste, Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Jose Antonio Rodriguez Ranz, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzeta sailburordea; Ane Beitia, Elgoibarko alkatea, eta Patxi Juaristi eta Iñaki Goigogana ikertzaileak eta proiektuaren kolaboratzaileak. Era berean, 36ko gerra hartan protagonismo berezia izan zuten hainbat udalerritako alkateak ere gonbidatu dituzte ekitaldira. Izan ere, Gogora Institutuak memoriaren beste ibilbide batzuk ere sustatu nahi ditu. Altzolatik Kalamuara arteko zatian fronteko puntu esanguratsuenak markatuko dituzte, eta domekan, Aiastiatik Zirardamendiko hobietarainoko zatia egingo dute oinez, aurkezpena egin eta gero.



51 urteko txirrindulari bat hil zen domekan Elgoibarren, trafiko istripuan



634 errepidean, 55. kilometro parean, gertatu zen trafiko ez-beharra domekan, 10:50ak aldera, txirrindulari baten eta Rover Discovery auto baten artean. Larrialdi zerbitzuetakoek lekuan bertan artatu zuten txirrindularia, baina orduerdi eskasera jakinarazi zuten 51 urteko gizonezkoa hil egin zela. Udaltzaingotik jakinarazi zutenenez, itxura batean, txirrindulariari ondoezak eman zion aurrena eta kontrola galdu zuen. Istripua izan zenetik 13:00ak aldera arte, errepidea itxita izan zuten ertzainek, 55. eta 56,4. kilometroen artean, eta Karkizanotik bideratu zuten trafikoa. Txirrindulariaren gorpua Donostiako Auzitegiko Patologia Zerbitzura eraman zuten, autopsia egin ziezaioten.

Jaunartzeak izango dira asteburuan, Elgoibarren

San Bartolome parrokiatik jakinarazi dute bihar eta etzi egingo dutela Elgoibarko neska-mutilek jaunartzea. Bi talde izango dira aurtan, eta ospakizunak, bai gaurkoa eta bai biharkoa, 12:00etan hasiko dira. Jaunartzeengatik domekan elizan jende gehiago pilatuko dela aurreikusita, ohiko eliztarrei esan diete zapatuan ospatuko dutela eukaristia, 19:00etan.

Egin nahiko lituzketen jardunen inguruan galdetu die bazkideei Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzak

'Taldean zer gustatuko litzaizuke egitea pandemia amaitzen denean?'. Galdera hori egin die Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzak bazkideei, inkesta bidez. Goiz pasak, ikastaroak, zine emanaldiak, irakurketa saioak... gustuko dutena proposatzeko eskatu diete, aukera guztiak aztertu eta zer egin daitekeen erabakitzeko. Betetako inkesta-orriak Jubilatuen Biltokiko postontzian sartzeko eskatu diete, eta orrian bazkide-zenbakia zehazteko eskatzen baldin badute ere, erantzunak guztiz konfidentzialak izango direla ziurtatu diete. Parte hartzen duten guztien artean zenbait opari zozkatuko dituzte urriaren 4an.

Landa eremuko emakumeen arteko elkar-ezagutza bultzatzeko sormen lehiaketa antolatu du Landaola Federazioak

Landaola federazioa osatzen duten Gipuzkoako landa garapenerako elkarteek –tartean da Debemen– *Landa Emakumeak* Gara izeneko egitasmoa jarri dute martxan, “Landa eremuan dauden elkar harremantzeko espazio urrien eta honek ekar dezakeen bakardaderako joerekin hausteko” eta egitasmo horren barruan sortu dute sormen lehiaketa iraila-urrirako.

Lehiaketarako gaia honako hau izango da: Landa eremuko emakumeak eta bizikidetzak. Gai horren bitartez, emakumeak gogeta egitera animatu nahi dituzte.

Lehiaketan parte hartu nahi duten emakumeek euskarri grafiko bat (argazki, marrazki, irudi, collage...) eta euskarri grafiko horri loturiko hausnarketa-testu txiki bat aurkeztu beharko dituzte sariketa-ara. Antolatzaileek azaldu dutenez, adinaren arabera kategoriak bereiziko dituzte: 25 urtetik beherakoak, 25-55 urte artekoak eta 55 urtetik gorakoak. 600 eurokoa, 450 eurokoa eta 300 eurokoa.

Internetez eman beharko da izena, Landaolaren webgunean: landaola.eus/lehiaketa. Doakoa izango da. Lehiaketan parte hartzen dutenen artean, euskarri grafiko eta hausnarketa arrakastatsuenak hautatuko dituzte epaimahai baten eta publikoaren bidez.



Epaimahai tekniko batek adin tarte bakoitzeko hiru lanik onenak aukeratuko ditu eta 600, 450 eta 300 euro jasoko dituzte hurrenez hurren saridunek. Publikoaren saria ere izango da, hala ere: bi lagunentzako gau bat eta gosaria Gipuzkoako landetxe batean. Botoa ematen duten guztien artean beriz, hemen bertako produktuekin osatutako saski bat zozkatuko dute. Horrez gain, sarituekin bideo labur bat ere grabatuko dute eta abenduan estreinatuko dute, saritutako lanekin osatuko duten erakusketan.

Mendaron Wifi sistema jarri dute liburutegian, udaletxeko bilera geletan eta pleno aretoan

Wifi bidez Interneten sartzeko aukera izango da aurrerantzean Mendaroko liburutegian, udaletxeko bilera geletan eta pleno aretoan. Wifia erabiltzeko bi aukera izango dituzte liburutegiko erabiltzaileek. Sakelako telefonoa dutenentzako: Telefonoan *Mendaro wifi_gonbidatuak* seinalea topatu eta bertan sartzean *Autoregistro por sms* izeneko aukera azalduko zaie. Era horretan, telefonora mezua helduko zaio, erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin. Egun baterako balioko dute horiek, eta behar den aldiro egin beharko da prozesu hori. Sakelakorik ez dutenenentzat: Liburuzainak erabiltzaile eta pasahitz bat sortuko die egunean bertan erabiltzeko. Liburutegiak honako ordutegia du, astelehenetik barikura, 17:30etik 20:00etara. Liburuzainarekin harremanetan jartzeko: 943 033 291 / liburutegi@mendaro.eus.

Mausitxakoa izendatu zuten gaztarik onena Bergarako San Martin azokan



San Martin azoka egin zuten zapatuan Bergaran, eta Mausitxa baserriko gaztak eskuratu zuten lehen saria gazta lehiaketan. Hamalau gazta ekoizlek parte hartu zuten San Martin azokako lehiaketan eta 216 puntu bildu zituen Mausitxako gaztak. Lekarozko SC kortaria gaztandegiak eskuratu zuten bigarren saria (196 puntu) eta Araiako Unai Lekuonak, hirugarrena (187 euro).

Bergarakoa ez da Mausitxak aurtengo udan irabazi zuten sariketa bakarra. Izan ere, abuztuaren 7an Debako Gazta Txapelketa irabazi zuten. Debako Urteberriko Ferian zen jokatzekoa gazta lehiaketa hori, urteko lehen zapatuan, baina pandemiaren ondorioz iaz ez zuten gazta lehiaketarik antolatu Soro Perian.

Mintxetako udako denboraldiaren balantze "oso positiboa" egin dute



Joa zen domekan itxi zituzten Mintxetako igerilekuak, eta arduradunek uda denboraldiaren balantze "oso positiboa" egin dute. Eman dituzten datuen arabera, erabiltzaile kopurua Covid-19aren pandemia aurretik oso gertu egon da: aurten 41.501 erabiltzaile izan dira, eta 2019an eta 2018an, 43.000 eta 42.000, hurrenez hurren. Uztaila izan da hilabete jendetsuena (15.066); ekainean 11.840 lagun ibili ziren, abuztuan 8.897 eta irailean 5.698. Era berean aipatu dute denboraldiak iraun duen 100 egunetan ez dela inoiz gainditu igerilekuetara sartzeko ezarrita zegoen 1.500 pertsonako muga: "Ekaineko bi egunetan, baina, egun osoan zehar sartu den jende guztia zenbatuta, 1.000 pertsona baino gehiago sartu dira (ekainaren 12an, 1.168, eta ekainaren 13an 1.758)", esan dute arduradunek, eta bi egun horietan ur putzuetako edukiera gainditu zela arratsaldean. Bi egun horien ostean Kirol Patronatuak ur putzuetako edukiera handitzeko aukera izan zuen, eta hortik aurrera edukiera arazorik ez dela egon nabarmendu dute. Kirol Patronatuko langile eta arduradunek eskerrak eman dizkiete herritarrei eta erabiltzaileei, segurtasun eta prebentzio neurriak errespetatu dituztelako eta horri esker, uda lasaia izan delako.

Zenbait lurpeko edukiontzia lurrizalekoengatik ordezkatzeko dituzte

Mallabian, Ermuan, Eibarren, Elgoibarren eta Mutriken lurpeko 52 edukiontzia kendu eta lurrizalekoak jarriko dituzte. Hala onartu zuten 2020ko abenduaren 16an eta dagoeneko hasita daude lanean. Gastuak murriztu nahi dituzte, eta era berean, zerbitzua hobetu. Lurpeko edukiontzien mantentze lanean kostu handiagoa dute. Laz, esaterako, 151.673 euro bideratu zituzten Mankomunitateak lurpeko edukiontzia konpontzera, eta 89.078 euro haien mantentze lan prebentibora. "Mekanismo mekaniko eta elektronikoen bidez funtzionatzen dutenez, erraz hondatzen dira hezetasunarekin", azaldu dute Mankomunitateak. Konpondu bitartean, lurrizalekoak jarri behar izaten dituzte haien lekuan, eta espazio publikoaren zati handi bat erabili ezinda gelditzen da. Kenduko dituzten lurpeko edukiontzien ordezkari jarriko dituztenak "herritarren egunerokotasuna oztopatuko ez duten tokian" jarriko dituztela nabarmendu dute eta "estetikoki homogeneoak" izango direla. Aldaketa horrek langileen lana ere erraztuko duela zehaztu dute, edukiontzia irisgarriagoak izanda azkarrago egin ahal izaten dutelako lana.

Udalbus zerbitzuak arrakasta izateko interesik ez jartzea leporatu dio Elgoibarko EHBilduk EAJri

Udalbusa martxan jarri izana txalotu du EHBilduk, baina erabakia "behartuta eta gogoz kontra" hartu izana egotzi dio EAJri, "Urazandiko igogailuen obrak aitzaki hartuta". Bi arrazoi eman ditu EHBilduk hori argudiatzeko: batetik, esan du EAJk ez zuela autobus zerbitzua beharrezko ikusten hasieran, eta bestetik, gerora hiru aldiz aldatu dutela iritiz: "Hasieran zerbitzurik ez zela behar aipatu zuten. Gero, Urazandiko igogailuen obrak iraun bitartean jarriko zuela (EH Bilduren presioa zela eta, beste auzo batzuetara ere zabaldu zuten zerbitzua, guk nahi genuena ez bazen ere). Gero, Errotaberriko igogailua eraiki bitartean jarriko zutela esan zuten, eta azkenik, legegintzaldi hau bukatzeko gelditzen diren bi urteetarako esleipena atera dute". Interesek ez dio ikusten EHBilduk EAJri herri barruko autobus zerbitzuak arrakasta izan dezan. Horren harira aipatu dute apirilaren 28ko Osoko Bilkuran autobus hori erabiltzeagatik kobratzea adostu zutela (EH Bilduk eta Podemosen kontra bozkatu zuten), baina oraindik ez direla kobratzen hasi: "Zertarako onartu zen kobratzearena? Jendeak atzera egiteko eta zerbitzuaren erabilera jaisteko, beharrezkoa ez dela justifikatzeko?". Bildutik diote jakin berri dutela San Rokeko igogailua amaitu arte ez kobratzea erabaki duela EAJk, eta bi bi galdera egin dizkiete jeltzaleei: batetik, non hartu den erabaki hori eta ia zergatik ez duten bete Osoko Bilkuran onartutakoa, eta bestetik, zergatik ez duten jakitera eman zerbitzua ez dutela momentuan kobratuko. "EH Bildu pozik dago ez kobratzearekin, baina osoko bilkura baten onartutakoa ez du betetzen EAJk, horrela okurrizten zaiolako?", gaineratu dute.

EH Bilduk uste du martxan den eredu ez dela "batere egokia", irisgarritasuna "eskasa" delako eta autobusa handiegia delako ibilbideko zati batzuetarako, Urazandirako adibidez. Era berean, gehitu dute abuztuan goizez bakarrik izan zela zerbitzua martxan, baina informazio-panelak ez zituztela aldatu eta horrek nahasmena sortu zuela. Horregatik guztiagatik, gaia "seriotasunez" eta "udaleko alderdi guztiekin eta herritarrekin batera" aztertzeko eskatu diote EAJri eta PSE-EEri, "zerbitzu duin bat martxan jartzeko".



Arg.: Irati Ayerza

PuntuEUS fundazioak Altzolatarren Dorretxean daukan bulegoa. Euskara eta Kultura sailen bulegoak zeuden lekuan daude.

Sarean euskara baliogarri eta ikusgarri egin nahi dute, eta orain, Elgoibartik

2019ko martxoan Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Iñaki Goirizelaia PuntuEUS Fundazioaren lehendakariak hamar urterako hitzarmena sinatu zuten, eta hitzarmen horri esker, PuntuEUS Fundazioaren egoitza nagusia Elgoibarko Altzolatarren Dorretxean dago geroztik, Elgoibarko Udalaren Kultura eta Euskara sailen bulegoak zeuden lekuan. Ez du, baina, lehengoaren konturik. Itxura modernoko bulegoa da, argitsua, eta bost laguneko lantaldeak egiten du lan bertan: Josu Waliño (zuzendaria), Lorea Arakistain (marketin arduraduna), Manex Garaio (informatikaria), Oier Albizuri (teknikari laguntzailea) eta Leire Palacios (euskara ingurune digitalean zabaltzeko proiektuen arloko arduraduna). Zuzendariak aurkeztu dizkigu bulegoa, bai eta PuntuEus fundazioaren egitekoak eta erronkak ere.

-AINARA ARGOITIA-

Hamahiru urte joan dira .eus domeinuaren proiektuak lehen urratsak egin zituenetik. Munduan katalanez jarduten duen Interneteko komunitatearen bilgune izateko sortu zuten .cat domeinua izan zuten eredu bultzatzaileek, eta prozesu bera jarraitu zuten. 2001ean kataluniarrek egin bezala, 2008an, PuntuEUS elkarte eratu zuten hemen, euskararen eta euskal kulturaren komunitatea egituratzeko. 58 elkarte eta erakunde batu ziren elkartean, eta 2012an, PuntuEUS Fundazioa sortu zuen elkarte horrek, Izenak eta Zenbakiak Banatzeko Interneteko Korporaziori (ICANN), munduan Internet kudeatzen duen erakundeari alegia, .eus domeinua sortzeko eskatzeko. Eskaria aztertu eta urtebete geroago eman zuen baietza ICANNek, 2013ko ekainaren 14an.

Gaur, badirudi .eus betidanik egon dela, proiektua errota dagoelako eta asko hazi delako azkeneko urteetan, baina abian

2014an jarri zuten. Eta egun, domeinu hori kudeatzen duen PuntuEUS fundazioak Elgoibarren dauka egoitza nagusia. "Guk ez dugu domeinua saltzen hemen. Domeinuak saltzen dituztenak nazioarteko multinazionalak dira, eta horietako bakar bat ez dago Euskal Herrian. Guk hitzarmenak sinatzen ditugu horiekin eta domeinuaren zaintza, kudeaketa eta sustapen lanak egiten ditugu", esan du Josu Waliño zuzendariak euren egitekoaz. Era berean, euskarak sarean eta ingurune digitalean presentzia handiagoa izateko proiektuak ere sustatzen dituzte Elgoibartik. Euskadi Irratian, esaterako, irratsaio bat du PuntuEUS fundazioak, eta blog bat ere badute. Era berean, gaztetxoek webguneak euskaraz sortzeko lehiaketa ere sortua dute, *Kaixomundua.eus*, eta aurten, EHUrekin, Aldundiarekin eta Danobaten laguntzarekin, Gladys Saria lehiaketa ere jarriko dute martxan, ingurune digitalean emakumeek egiten duten lana saritzeko eta aintzatesteko.

“Erabiltzaileon esku dago erakustea euskaraz erabili nahi ditugula gailu adimendunak”

▶ **JOSU WALIÑO** PUNTUEUS FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Arg.: Irati Ayerza

Informatikan lizentziatua da Josu Waliño (Zumaia, 1972) eta 2014ko irailean izendatu zuten PuntuEUS fundazioko zuzendari. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresaren sortzailea ere bada eta Elhuyar Fundazioko Berrikuntza eta Proiektuen zuzendari eta zuzendaritzako kide izandakoa da.



♦ **Elgoibarren duzue egoitza. Zergatik aukeratu zenuten Elgoibar? Zer ematen dio PuntuEus-ek Elgoibarri?**

Hemen egotearen arrazoi handietako bat aukera eman izana da. Donostian, Deustuko Unibertsitatean, geneukan guk egoitza, Ekintzailetasunerako Zentroan, baina aldi baterako, eta hasita geunden lokal bila. Bageneukan parke teknologiko batera joateko aukera, baina pentsatu genuen kanpoalde batean egotea baino hobeto zela herrigune batean zabaltzea bulegoa, beti ere garraio publikoarekin ondo komunikatuta zegoen herri batean. Aukera ezberdinak sortu ziren eta Elgoibar izan zen Patronatuak egokien baloratu zuena. Hona etorri ginenetik garbi daukagu herriari ere onuraren bat eman behar diogula. Euskal Herriko erreferentziazko proiektua da PuntuEUS eta iruditzen zait hori Elgoibarren kokatzea ona dela herriarentzat. PuntuEUSen proiektua oso lotuta dago burujabetza teknologikoarekin eta aurrerapen teknologikoarekin eta horregaitik nahi dugu ikuspegi hori ekarri. Eta horregatik, iritsi bezain laster *Euskara ala Ezkara* jardunaldia antolatu genuen Elgoibarko Izararekin eta Udalarekin. Guk nahi duguna da urtero zerbait egitea Elgoibarrentzako onuraren bat izango duena. Orain, emakumeen arrakala digitala gaintitzen laguntzeko proiektu bat jarri dugu martxan, Debegesarekin.

♦ **Zortzi urte pasatu dira '.eus' domeinua aktibatzen. Bete al dira helburuak?**

Sorrera taldeak markatu zituen hasierako helburuak ez dakit, baina PuntuEUS fundazioak jarri zituen helburuak gaintitu dira, bai. Momentu honetan 12.000 domeinuen langa gaintituta dago, eta proiektuaren bideragarritasuna, bermatuta. *.Eus* domeinuak euskara baliogarri, erabilgarri eta ikusgarri egin nahi du sarean eta horretarako domeinu gehiago behar ditugu, baina batez ere, erreferentziasuna behar dugu; hau da, domeinu asko behar ditugu, baina ez edonolakoak. Eta esan genezake erreferentzial-

tasuna lortu dugula, *.eus*-en inguruan bildu diren webguneak esanguratsuak direlako.


♦ **Non gaude?**

Munduko edozein herrialde hartuz gero -Alemania albora utzita, han egoera beste bat delako-, irudia beti bera da: *.com* domeinua da denetan nagusi. Munduan, 350 milioi domeinu daude eta horietatik erdia baino gehiago *.com* dira. Gainerako denak besteen artean banatzen dira, baina proportzioan oso alde handiarekin. Espainiara jotzen badugu, *.com* da nagusia, *.es* da bigarrena, eta distantzia handi batera daude gainerako denak. Eta Euskal Herrira etorrira ere, gauza bera gertatzen da. Domeinu zabalduena *.com* da, estatuari erreferentzia egiten diona da bigarrena (*.es*), eta tropelean datoz gainerako denak. Eta guk tropeletik ihes egin nahi dugu hirugarren posizio hori eskuratzeko. Eta hortxe gaude. Gainerako guztiak txikitzen ari dira merkatuan, eta gu, aldiz, hazten. Datuen Babeserako Legeagatik gero eta zailagoa zaigu datuak lortzea, baina hala ere, dakiguna da 15.000 domeinutara iritsi behar dugula hirugarren leku hori lortzeko. Pare bat urtetan lortu nahiko genuke.

♦ **12.000 webgune. Zein tipologiatakoak dira?**

Interneten ohikoa den moduan, enpresak dira *.eus* domeinuaren erabiltzaile nagusiak. Ia erdiak dira. Gero datoz euskara eta euskal kulturaren alorreko eragileak, erakunde publikoak, hezkuntzako eragileak, norbanakoak, komunikabideak, kirol erakundeak eta beste batzuk. Asko harritu egiten dira gure domeinuaren erabiltzaile nagusiak enpresak direla entzutean, gehienek uste dutelako administrazio publikoak eta kultur erakundeak izan behar direla. Eta bai, erakunde publiko gehienek *.eus* erabiltzen dute eta enpresa gehienek ez dute *.eus* erabiltzen, baina *.eus* erabiltzen duten gehienak enpresak dira eta gainera hazkunde joera handiena ere hor ari da ematen. Guretzat garrantzitsua zera

Domeinuaren banaketa geografikoa



da: erakustea .eus domeinuaren balioa askotarikoa dela. Esparru guztietan dago, eta erreferentzialtasuna horrek ematen du. Euskal Herrian zaudeten ia hedabide guztiak .eus zarete, esaterako. Kenduta *El Diario Vasco* eta *El Correo*, .com-ekin jarraitzen dutela, nahiz eta .eus izan baduten. Cadena Ser bera ere .eus da.


♦ **Banaketa geografikoaz esan izan da '.eus' Euskal Herri osoan dagoela zabaldua, baina desoreka handiak daudela lurraldeka. Oreaku al da hori?**

Ez. Desoreka nabarmena da. Gipuzkoa eta Bizkaian dago errotuen domeinua, eta gutxien, Lapurdin, Baxenafarroan eta Zuberoan. Domeinuaren banaketa geografikoa oso lotua dago Euskal Herriaren errealitate soziolinguistikoarekin. Datuei erreparatzen badiegu, .eus domeinuen %42 Gipuzkoan daude erregistratuta, %33 Bizkaian, %10 Araban, %4 Nafarroan, %2 Iparraldean eta %9, Euskal Herrikan kanpora. Nafarroako eta Iparraldeko datuak oso apalak dira, eta pisu handiagoa behar lukete. Horregatik, eta kanpaina orokorrak lurralde guztietan egiten badiugu ere, aurten, berariaz sortuko dugu kanpaina bat Iparralderako.

♦ **Bitxia da Euskal Herrikan kanpo '.eus' domeinu gehiago egotea Iparraldean edo Nafarroan baino.**

Bai, Euskal Herrikan kanpoko merkatuan ere badago .eus eta horren arrazoia sinplea da: .eus domeinuak ez dio eremu geografiko zehatz bati egiten erreferentzia, baizik eta komunitate kultural eta linguistiko bati. Hau da, .eus-ek euskara eta euskal kultura ordezkatzen ditu Interneten. Hemendik kanpo ere edonork erabil dezake ikuspegi horrekin, eta berdin kanpoko batek hemen. Euskal Herrian egoitza duten kanpoko enpresa batzuek edo hemen lekua egin nahi dutenek erabiltzen dute, Mercadonak eta Cadena Ser-ek esaterako. .Eus domeinua erabiltzeak gertutasuna transmititzen laguntzen die eta hori beti da ona merkatuan sartzeko. Horiek bezala enpresa teknologikoek (Google, Apple, Twitter...) ere joera handia dute bertako domeinua hartzeko eta oso garrantzitsua da, horrek esan nahi duelako euskarari lekua egingo diotela euren zerbitzuetan. Aldaketa ekar dezake haien komunikazioan.

Domeinuaren banaketa tipologikoa



Gure helburua hori da: beste domeinu batean erdaraz ari direnak euskarara ekartzea .eus domeinua hartutakoan.

♦ **Zein da gaur PuntuEUS fundazioaren erronka?**

Euskal Herrian euskarazko edukia duten webgune guztiak .eus izatea. Gure neurketen arabera, 26.000 webgune inguru daude euskarazko edukiarekin. Beste erronka bat da euskarak presentzia handiagoa izatea Interneten; hau da, gaur 26.000 webgune direnak gehiago izatea eta denek .eus domeinua hartzea.

♦ **Zer nolako osasuna du euskarak Interneten?**

Euskararen bizitasun digitala neurtzeko ezinbestekoa da eskaintza eta eskaria, biak, aztertzea, eta ikuspegi kuantitatiboa ez ezik kualitatiboa ere aintzat hartu behar da euskarak ingurune digitalean duen presentzia zenbatekoa den esateko. Baina zein prisma bati begiratu, erantzuna bat edo beste izan daiteke. Euskara

osasuntsu dago sarean? Bai, konparatzen badugu beste hizkuntza gutxitu batzuek duten osasunarekin. Euskarak badu komunitate bat Interneten, badu domeinu aktibo bat, badu presentzia bat eta gainera eragile asko ari dira hori sustatzen, eta beraz, beste hizkuntza gutxitu batzuek baino osasun hobea du, baina erreparatzen baldin badiogu ingurune


digitalean ematen ari den eboluzioari, beharbada ez dago horren osasuntsu. Izan ere, gaur egun ditugun gailu adimendun guztiak erdaraz egiten dute eta ez dute euskara ulertzen. Dauden joera berrietan euskarak ez dauka presentziarik. Gaur egun sarean mugitzen den trafikoa ere ehuneko handi bat, esaterako, bideoa da, eta gu webgunez ari garenean testuaz ari gara. Kontsumo digitaleko joera nagusia plataforma digitalak dira: Netflix, Prime Video, Disney... Lortu behar duguna da sortzen ari den eremu horietan guztietan euskarari toki bat egitea. Sortu da *Pantailak euskaraz* izeneko mugimendu bat.

♦ **Ingurune digitala euskaratzeko sortu diren proiekturik interesgarrienak aipatuko zenizkiguke?**

Adimen artifizialean ematen ari diren pausoak nabarmenduko nituzke. Adimen artifiziala mundu mailan izugarriko ez-

“'.Eus' domeinuak ez dio eremu geografiko zehatz bati egiten erreferentzia, baizik eta komunitate kultural eta linguistiko bati”

Euskararen presentzia .EUS domeinuetan



tanda izaten ari da, baina zorionez, Euskal Herrian eta euskararentzat ere bai. Hemen garatzen ari den adimen artifiziala puntakoa da. Itzultzaile neuronalak, ahotsaren ezagutza bidezko transkripzio automatikoak... Ari dira garatzen baita ere bozgorailu adimendun bat euskaraz funtzionatuko duena. Horrekin batera beste gako garrantzitsu bat izango litzateke burujabetza teknologikoan sakontzea, adibidez hezkuntzaren eremuan. Hezkuntzan izugarritzko menpekotasuna daukagu Google eta Microsoftekin eta horrek behartzen ditu gure haurrak tresnak erdaraz erabiltzera. Pandemia honek eskolak ixtera behartu gintuenean, Microsoftek eta bereziki Googlek ikasgelak konkistatu zituzten eta izugarritzko negozioa egin zuten. Teknologia bat edo beste erabiltzearen inguruan gogoeta egin beharko genuke. Instituzioek izugarritzko ardura dute hor, eta erabakiak hartzeko garaian teknologia burujabe eta askeago baten aldeko apustua egin beharko lukete. Ez dira erabaki errazak, bistan da, multinazional hauen plataformak eginda daudelako eta oso erosoak eta intuitiboak direnez zaila delako haiei uko egitea, baina uste dut estrategia bat behar dela.

♦ **EITBko zuzendari Andoni Aldekoak iragarri zuen ikus-entzunezko plataforma bat sortuko zutela, euskal Netflix halako bat. Zer irizten diozu? Non ikus ditzakegu filmak euskaraz?**

Legez ikustekotan, oso aukera gutxi dauzkagu. EITBren *Nahieran* eta ezer gutxi gehiago. Gero badaude, Euskal Encodings eta halako plataforma batzuk, baina horixe. Eta bai, EITBko zuzendari Andoni Aldekoak iragarri zuen euskal Netflix halako bat sortuko zutela eta Euskal Herrian sortzen diren ikus-entzunezko lan guztiak, filmak, dokumentalak eta bestelakoak ikusi ahal izango ditugula bertan. Baina ez da euskarazko Netflix bat izango, ez baita euskara hutsean izango. Kritikoa naiz horrekin, amaitzen dugulako beti plataforma paraleloak sortzen, eta jendeak olatu nagusiarri jarraitzen diolako beti. Jendeak jarraitzen du Netflix eta Disney + kontsumitzen, guk *Nahieran* moduko zerbait sortu arren. Egokiena plataforma nagusietan euskara gehitzea da, baina egia da, era berean, ez dela errazena. Errealitatea da borroka hau ez dagoela guztiz gure esku. Aisialdi digitalean hutsune handiak dauzkagu betetzeko, dena erderaz delako.


♦ **Zer dago gure esku?**

Erabiltzaileen esku dago erakustea interes bat dugula eta euskaraz erabili nahi ditugula gailu adimendunak eta euskaraz nabigatu nahi dugula Interneten. Hori egitearekin behartuko ditugu multinazionalak euskara zaintzera, gauza jakina delako Interneten egiten dugun guztia neurtua dagoela gaur egun. Zer hizkuntzatan nabigatzen dugun, zer hizkuntzatan konfiguratu ditugun gure sakelako telefonoak, zer hizkuntzatan erabiltzen ditugun tresnak... dena neurtzen da, eta beraz, erakutsi behar duguna da badugula nahia euskara kontsumitzeko sarean eta ingurune digitalean, horrek sortuko duelako masa kritikoa.


♦ **Nola eragin dio pandemiak zuen egitekoari?**

Pandemia garaian landu genuen plan estrategiko berria eta ikusten duguna da transformazio digitaleko prozesu bat bizi dugula, asko azkartu dena pandemiagatik eta konfinamendu egoeragatik, baina digitalizazio hori hain azkarra izateak eragin negatiboa izan duela euskararen ikuspegitik. Ez zaio lehentasunik eman euskarari, baizik eta digitalizazioari eta uste dugu hor badugula lana. Digitalizazio prozesu horretan euskara txertatzen eta euskaratik eragiten ahalegintzea dira gure egitekoak eta zabalitzen ari garen bideak horra begira daude.

Debabarrenean 2.948 webgune



Luzapenen banaketa %





▶ IGOR LIZARRALDE ETA AINHOA URBIZU

SANLOKO EMAKUMEZKOEN SENIOR TALDEKO ENTRENATZAILEA ETA KAPITAINA

Nazional B mailari eustea lortu zuen iaz Sanloko emakumezkoen senior taldeak, eta maila berean hasiko du aurtengo denboraldia asteburu honetan. Igor Lizarralde (Elgoibar, 1972) entrenatzaileak eta Ainhoa Urbizu (Elgoibar, 1996) taldeko kapitainak egin dute iazkoaren balorazioa eta aurtengorako dituzten helburuak ere azaldu dituzte. Biak bat datoz esatean Elgoibar bezalako herri batentzat sekulakoa dela talde bat Nazional B mailan edukitzea, eta harro diote hori "Sanlo familiari" esker lortu dela.

- AINHOA ANDONEGI -

"Zerbait ondo egiten ari gara Sanlon"

- Igor Lizarralde -

♦ **Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan lortu zenuten mailari eustea iaz. Egingo al diguzue denboraldiaren balorazio bat?**

Igor Lizarralde: Niretzat, bai eta taldearentzat ere, sekulakoa izan zen mailari eustea. Covid-arekin zortea izan genuen, eta gure taldea ez zen denboraldi osoan behin ere konfinatuta egon. Partida bat atzeratu ziguten, baina kontrako taldearengatik izan zen, beraz, alde horretatik zorte handia izan genuen. Gure arazo

handiena lesioak izan ziren iaz. Urte oso gogorra izan zen, hasieran bereziki. Lehenengo buelta zaila izan zen, kostatu egin ziizaigun gure jokoa egitea, eta partida asko galdu genituen. Kategoria berria zen guretzat eta taldea ez zegoen hainbeste partida galtzera ohituta; gogorra izan zen. Gabonetatik aurrera askoz hobeto joan ziren gauzak. Gure kapitainak detaile oso polita izan zuen taldekin eta horrek motibatu zituen guztiak. Bigarren bueltan partida bakarra galdu

genuen etxean, eta jardunaldi baten faltan lortu genuen maila mantentzea. Izugarria izan zen guztiarentzat.

♦ **Kontaguzu ba, Ainhoa, zer egin zenuten taldea motibatuzko?**

Ainhoa Urbizu: Denboraldi hasiera gogorra izan zen, azken minutuetan galdu genituen partida asko eta taldekideen motibazioa apaltzen ari zen. Gabonak iritsi ziren eta zerbait egin beharra zegoen. Taldekideen senide eta lagunekin jarri nintzen harremanetan bakoitzari bideo labur

bat eskatzeko, eta jasotako atal guztiekin bideo bat osatu nuen. Bigarren bueltako lehenengo partida hasi aurretik jarri genien jokalarie. Bideo horrekin gogorarazi nahi nien zenbat balio genuen eta merezi genuela maila horretan egotea. Hortik aurrera hobeto joan ziren gauzak.

♦ **Zuk, Igor, urte asko daramatzazu eskubaloiko entrenatzaile lanetan. Zer suposatzen du zuretzat Nazional mailako talde bat entrenatzeak?**

I.L.: Izugarria da. Jokalariak lanerako prest daude, protestatzen dute, baina lan handia egiten dute eta beti daude laguntzeko prest. Ardura asko hartzen dituzte jokalariek eta ni oso gustura nago talde honekin. Kostata iritsi gara maila honetara, eta satisfazio handia ematen du. Ordu asko eskaintzen dizkiot eskubaloitari. Gauzak ondo egitea gustatzen zait eta horrek lana eskatzen du, baina niri konpentsatzen dit. Aipatu nahi ditut baita ere Xabi Uribetxerria eta Lorea Gabilondo, pila bat laguntzen didatelako, eta baita taldeko delegatuak ere.

♦ **Aurtengorako zein helburu dituzue?**

I.L.: Helburu nagusia mailari eustea da, baina saiatu behar gara iaz baino lehenago lortzen helburu hori. Iazko denboraldi amaiera oso gogorra izan zen: Jokalariak irabaztera ohituta zeuden, baina iaz ohikoagoa zen galtzea, eta horrek psikologikoki kalte handia egiten du. Ahal dela, aurtan lasaiago egon nahiko genuke.

♦ **Zu, Ainhoa, taldeko kapitaina zara. Zein da zure ardura taldean?**

A.U.: Nire lana izaten da Igorren eta jokalarien arteko zubi-lana egitea. Bestela ez daukat ardura berezirik. Baina bai saiatzen naiz jokalariak animatzen, jende berria taldean integratzen, eta denok gus-tora sentiarazten. Hasierako fase honetan denok bat izatea da garrantzitsuena.

♦ **Denboraldi-aurrea bukatu duzue eta asteburuan hasiko duzue liga. Zein sentazio dituzue?**

A.U.: Denboraldi-aurreko lehenengo partidak ez dira onak izan. Erritmoa hartzea kostatu zaigu, gure artean ulertzea ere bai... Baina azkenerako sentazio ho-

“Sanlok asko egin du emakumeen kirola sustatzeko eta neskak kirolera gerturatzeko”

- Ainhoa Urbizu -

beak izan ditugu. Camargon jokatu genuen partidaren erakutsi genuen zein den gure nortasuna eta gure jokoak.

♦ **Denboraldia hasi aurretik kontzentrazioa egin duzue Aubixan, profesionalen pare. Zertan laguntzen du horrek?**

I.L.: Helburua jokalarien arteko harremana sendotzea izaten da. Covid egoera honetan entrenamenduetan eta partidetan barririk elkartzen gara, eta gainera entrenamenduetan jokalaria batzuk ez dira elkartu ere egiten, eta elkar ezagutzea oso garrantzitsua da. Duela bi urte asteburu bat pasatu genuen elkarrekin Landetan eta sekulakoa izan zen. Iaz ere nahi izan genuen, baina ezinezkoa izan zen, eta aurtan Aubixara joan gara. Jokalari berriak daude taldean eta garrantzitsuak dira horrelako egonaldiak. Taldea oinarrian iazkoa da, baina batzuk joan egin dira eta berriak ere etorri dira, eta konfiantza eman behar zaie. Aurtan gainera amadun jokalaria bat izango dugu taldean. Esperientzia handiko jokalaria da, beterranoa, eta seguru nago pila bat lagunduko diola horrek taldeari.

♦ **Igor, noiz eta nola iritsi zinen zu Sanlora?**

I.L.: Eskola Kiroleko entrenatzailea nintzen ni Ikastolan, 16 urte nituela. Institutuan nenbilen eta esan ziguten Eskola Kiroleko taldeak entrenatzeko jendea behar zutela, eta izena eman nuen. Zerbait ordaintzen ziguten, eta diru hari esker gidabaimena atera nuen. Eskubaloian, futboleko eta saskibaloian entrenatzen nituen umeak. Gero, Gipuzkoa mailako begirale titulua atera nuen, eta poliki-poliki sartu nintzen Sanlon. Gerora beste hainbat entrenatzaile titulu atera ditut eta hemen jarraitzen dut.

♦ **Elgoibar bezalako herri batentzat zer**

da Nazional mailako eskubaloi taldeak edukitzea?

I.L.: Duela egun batzuk gai hau erabili genuen hain justu Ermuko kirol arduradunarekin. Elgoibarrek 10.000 biztanle inguru ditu, eta talde bat daukagu futboleko gizonetzkoen bigarren mailari dagokien kategorian. Gurea bezalako herri batentzat sekulakoa da hori. Gurea herri bat da, eta jokatzeko dugu hiri handietako taldeen kontra. Iruñean lau talde daude gure mailan, eta Logroño, Zaragozako eta Santanderreko taldeen kontra ere jokatzeko dugu. Eta Gipuzkoan gaude, gu, eta Zarautz, Elgoibar baino biztanle gehiago dituen herria, eta Bizkaian, Ermua eta Bilboko beste bi talde. Elgoibar batentzat horrelako mailan taldea edukitzea benetan kontuan hartzekoa da, eta iruditzen zait jende asko ez dela konturatzen honen balioaz. Mutiletan ere maila oso ona dago. Urteetan egon dira seniorrak futboleko Bigarren B mailaren pareko kategorian, eta hori gauza handia da. Sanlon zerbait ondo egiten ari gara.

♦ **Ekonomikoki nola egiten duzue taldea bideragarri izatea?**

A.U.: Ni hasi nintzenean jokalaria bakoitzak bere fitxa ordaintzen zuen, eta trukean kamiseta bat, praka bat eta jertse bat ematen ziguten. Orain dela urte batzuk seniorrei eman zieten motxila eta ekipazio guztia, eta orain denoi ematen dizkigute. Oraindik ere jarraitzen dugu bakoitzak bere fitxa ordaintzen eta Gabonetan loteria saltzen dugu.

I.L.: Babesleak ere baditugu, eta horiek asko laguntzen digute. Partidetan errifak saltzen ditugu, eta hortik ere ateratzen dugu dirua. Fitxarekin bakarrik ez da nahikoa. Bidaiak eta arbitrajeak ere ordaindu behar izaten dira, eta hori oso garestia da.

♦ **Argi dago eskubaloiarekin ez zaretela aberastuko, eta hala ere dena ematen duzue eskubaloigatik. Zer ematen duzue zuei eskubaloiak?**

A.U.: Eskubaloiak konpromiso handia eskatzen du. Talde bateko kide zaren momentutik betebeharrak batzuk dituzu:

entrenamenduak, partidak... Baina aldi berean, talde bako kide zarela sentitzea oso polita da, eta taldekideak jokalaria hutsak izatetik lagun izatera pasatzen dira askotan. Momentu tristeak eta gogorrak pasatzen ditugu, baina poztasun momentuak ere asko izaten dira. Zaila da esplikatzera zer ematen duen eskubaloiak, baina asko ematen du.

I.L.: Hainbeste urteren ondoren argi dago zerbait ematen didala! Ni oso gustura joaten naiz entrenamenduetara eta gero partidetan ikusteak entrenamenduetan egin ditugun gauzak aplikatzen direla satisfazio handia ematen dit. Eta horrez gain, lagun asko eman dizkit eskubaloiak, bai herrikoak eta baita kanpokoak ere.

♦ Zein dela uste duzue eskubaloiak Elgoibarren duen arrakastaren arrazoia?

I.L.: Urte askotako lanaren emaitza da. Gurasoak izugarri inplikatu dira, eta merito handiena beraiena da. Une honetan ere zuzendaritzako kide guztiak jokalarien gurasoak dira, eta batzuen seme-alabak dagoeneko ez dira jokalaria, baina beraien klubean jarraitzen dute. Horrez gain Elgoibarren antolatua



diren txapelketa eta iguera faseek laguntzen dute afizioa sortzen. Gazte txoak etortzen dira partidak ikustera, eta asko animatzen dira eskubaloia probatzera. Harrobia sendo dago, eta hori goiko mailetan islatzen da.

A.U.: Nik lehenegusina ikusten nuen eskubaloian jokatzeko, eta niri ere sartu zitzaidan eskubaloian jokatzeko gogoia. Nahi nuen bere zenbakiarekin jokatu, berak moduan gozatu, eta esango nuke beste jokalaria asko ere ni bezala animatu direla, beste batzuk ikusita.

♦ Nola bizi dituzue partidak?

A.U.: Iazko denboraldia publikorik gabe jokatu ostean, joan zen astean jokatu genuen lehenengo partida ikusleekin eta berezia izan zen. Urduritasun sentazio bat geneukan, baina sekulakoa izaten da kiroldegian sortzen den giroa.

♦ Gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdintasun handiak daude kirollean. Sanlori dagokionez, nola ikusten duzue egoera?

I.L.: Sanlon saiatzen gara desberdintasunik ez egiten. Nire kasuan, pertsonalki, neska eta mutilak biak entrenatu izan ditut. Hasierako urteetan ibili nintzen mutilak entrenatzen, baina geroztik beti neskek entrenatu ditut eta ni oso gustura nago. Jokoa oso desberdina da: mutiletan gehiago da indarra eta abiadura, eta nesketan ere tendentzia hortara doa, baina gehiago jokatzen da taktikoki. Niri ikusteko gehiago gustatzen zait neskena.

A.U.: Ni emakumea naiz eta kirolaria, eta harro sentitzen naiz. Sanlok asko egin du nesken kirola sustatzeko eta emakumeak kirolera gerturatzeko, baina gizartean oraindik gehiago egin daiteke.

SANLO FAMILIA

- Sanloren aurrekontua 21-22 denboraldirako: 142.400 €
- Talde kopurua: 17 talde eta bi eskubaloia eskolan
- Mutilak:
 - Alcorta Forging Group (Senior) Euskal liga
 - Pizzeria Salento (Senior) 1º Lurraldeko liga
 - Deca (Jubenilak) Lurraldeko liga
 - Deuko Izarra (Jubenilak) Lurraldeko liga
 - Urkunde (Kadeteak) Lurraldeko liga
 - Zubacor (Infantil) Lurraldeko liga
- Neskak:
 - Gaurve Asesores (Senior) Zilarrezko Ohorezko Maila
 - Arilan (Senior) 1º Lurraldeko liga
 - Cimde (Jubenilak) Euskal liga
 - Bankoa (Jubenilak) Lurraldeko liga
 - Salento Gelati (Kadeteak) Euskal liga
- Astigarraga GYS Sport (Kadeteak) Lurraldeko liga
- Neurri (Kadeteak) Lurraldeko liga
- Tecnifuelle (Infantil) Lurraldeko liga
- Dario Bus (Infantil) Lurraldeko liga
- Bacalaos Alcorta (Infantil) Lurraldeko liga
- Pneumax (Infantil) Lurraldeko liga
- Jokalari kopurua:
 - 272 jokalaria (172 neska eta 100 mutil)
- Entrenatzaile kopurua: 28
- Zuzendaritza taldeko kideak: 10
 - Aitor Urain (Lehendakaria)
 - Javier Ribao (Lehendakariordea)
 - Juan Ramon Agirregomezkorta (Diruzaina)
 - Fidel Gomez (Idazkaria)
 - Eta beste 6 pertsona gehiago

Lila: emakumeen arnagune eta babestoki

Zabaldute Lila, Elgoibarko Emakumeen Etxea. San Frantzisko kaleko, 21. zenbakian dago, Gotzon Garate udal liburutegia egon zen espazioan eta 150 metro koadroko azalera du. Eguaztenean egin zuten irekiera ekitaldia eta aretoa bete egin zen. Miren Elgarresta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako zuzendariarekin eta Ane Beitia alkatearekin eta Maialen Gurrutxaga Berdintasun zinegotziarekin batera, udaleko beste zenbait zinegotzik ere parte hartu zuten ekitaldian, bai eta herriko emakume taldeetako zenbait kidek ere, besteak beste Haizea, Uluka, Emakumeen Kontseilua eta Loreak emakume taldeetako ordezkariak.

Topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako erreferentziatzeko gune izan nahi du Lilak herriko emakumeentzat; emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde borroka egiteko gunea. "Eskola feministaren erreferentziatzeko gunea izango da, maila fisikoan zein sinbolikoan", zehaztu zuen Gurrutxagak. Erreferentzialtasun hori helburu jakin batzuei lotuta lotu nahi dute: emakumeen arteko harremanak, sareak eta lankidetzak sustatzeko tokia izatea nahi dute Lila, eta hein berean, Eskola Feministaren erreferentziatzeko espazio bihurtu nahi dute. Era berean, kontzientzia feminista garatzeko eta aktibismo soziopolitikoak lantzeko eremua izatea nahi dute, eta indarkeria sufritzen duten edota haren kontra aktiboki lan egin nahi duten emakumeentzat babesgunea.

Labur esanda, herriko emakumeentzako "arnagune", "harrera-gune eta babestokia" izango da Lila. "Emakume librearen eremua, askotarikoa, feminista, laikoa, aktibista, askapen pertsonalerako eta indarkeriarik matxistarik gabekoa, emakume zapalduentzako edo babesik gutxien duten emakumeentzako espazioa", jaso dute idatziz. Herritarren parte-hartze aktiboa sustatu nahi dute bultzailuek eta elkarrekin kudeatu nahi dute espazioa. "Zerbitzu publikoaren eta kudeaketa komunitario edota sozialaren arteko eredu hibrido bat izango da", zehaztu dute.

Espazioa erakusteaz batera, agenda oso baten berri ere eman zuten atzo, hona ekartzekoa baino luzeagoa, baina datozen aletan joango gara aletzen.

EH Bilduren kritika

Proiektuaren sorrerako helburuekin bat egin arren, Lilari "gabezia handi bat" ikusten diola zabaldute du EHBilduk prentsa ohar bidez: kudeaketa eredu. "Zalantzarria" iritzi dio kudeaketa ereduari: "Emakumeen Etxearen kudeaketa, Udalarekin batera, libreki parte hartu nahi duten edo azpiegitura erabili nahi duten emakumeekin eta beren antolakundeekin ere egin beharko litzateke, batzorde kudeatzaile baten bidez, feminismoak dituen ikuspegi eta errealitate desberdinen isla bermatzeko". Haien esanetan, Udalaren funtzioa espazio hori zaintzea da, baina emakumeen Etxearen programazioak, zerbitzuak eta eskaintzak, nagusiki emakumeen autogestioaren bidez erabaki behar direla uste dute. Programazioaren inguruan ere kezka agertu dute EH Bildutik. Salatu dute euskararen erabilera "mugatua" dela eta datua eman dute: 16 ekintzetatik zortzi gaztelania hutsez izango dira, 5 elebitan, eta hiru euskaraz.



▶ MIKEL GURRUTXAGA

FUTBOLARIA

Azken urteak Europa iparraldeko futbol taldeetan egin ditu Mikel Gurrutxaga Barruetañak (Elgoibar, 1996), Finlandia, Estonia eta Lituaniako liga txapelketetan. Orain, Baltikoko lur hotzak atzean laga eta Ceutan jarraituko du bere futbol ibilbidea. A.D. Ceutan jokatu du, Espainiako Ligako Bigarren B mailan lehiatzen den taldean.

- ASIER ORBEA -



“Bizimodu bera egiten jarraitzeko aukera ematen zidalako onartu dut Ceutaren eskaintza”

♦ Europa Iparraldetik dezente hegoalderago eraman zaitu futbolak oraingoan. Nola iritsi zara Ceutara?

Beno, iparraldean jarraitzen dut oraindik ere, baina Afrika kontinentearen iparraldean. Lituania nengoela Ceuta futbol taldera joateko aukera sortu zitzaidan, abuztu erdialdean. Bizimodu bera egiten jarraitzeko aukera ematen zidan: ikaskekin jarraitzekoa, neskalagunarekin batera esperientzia berri bat bizitzekoa, eta hortaz, pozik jaso nuen Ceutaren eskaintza. Hona etortzeko gogoia sortu zitzaidan, eta horixe da garrantzitsua. Lehen moduan, orain ere etxetik urrun nago, baina hemengo hizkuntza eta kultura gertukoagoak egiten zaizkit, eta horrek asko errazten du egunerokoa. Andaluziarrez beteta dago Ceuta eta Euskal Herriko bizimodutik gertuago dago hau azken urteetan bizileku izan ditudan Baltikoko herrialdeetatik baino.

♦ Zer alde dago Baltikoko futbol ligaren eta Espainiako Ligako bigarren B mailaren artean?

Finlandian egon nintzenean ez nuen hango gorengo mailan jokatu, baxuagoan baizik. Aldiz, Estonia eta Lituania hango lehen mailatan lehiatzeko aukera

izan nuen, eta gainera, bi herrialde horietako talderik onetsuenetan. Han maila handia zegoen. Hori bai alde handia zegoen talderik onenen eta gainerakoen artean. Aurrekontu handiagoa dute onenek eta kanpoko jokalaririk fixatu ditzakete, taldea hobetzeko. Talde txikietan ez dute aukera hori. Hala eta guztiz, Espainiako Bigarren B mailan ere maila handia dago, eta uste dut Estonian eta Lituania ezagutu dudanaren pare ibiliko dela Ceuta maila.

♦ Nola ari zara moldatzen taldera?

Berandu ailegatu naiz taldera, denboraldi-aurrea eginga zutenean, eta desabantaila da hori niretzat. Fisikoki nire onena ematera iristeko prestatzen ari naiz orain, taldeari ahal dudanean laguntzeko. Ligako bi jardunaldi jokatu ditugu. Lehenengoan 2-3 galdu genuen etxean eta bigarren partidaren berdinketa garrantzitsua lortu genuen gure multzoko faboritoetako bat den Meridaren etxean. Andaluziako taldeak, Kanariar Uharteetakoak eta Extremadurakoak izango ditugu aurkari ligan. Oso gustura nago taldekideekin, klubarekin eta baita orain arte Ceutan ikusi dudanarekin ere. Oso hiri polita da hau.

♦ Nolako hiria da Ceuta?

Oso-oso hiri desberdina iruditu zait. Duen kokapen geografikoagatik, nahastuta bizi dira kultura eta erlijio desberdinetakoak. Kulturantzitasun handiko hiria da: musulmanak, juduak, katolikoak eta hinduak bizi dira hemen, lur zati txiki batean. Berehala uxatzen zaizkizu izan ditzakezun aurreiritziak hainbeste jende desberdin elkarrekin lasai eta ondo bizi direla ikustean. Irakaspen handia da hori. Berez ez da oso hiri handia. Erdialdeak penintsulako ukitua du, eta erdigunetik aldendu ahala, kultura desberdinetako auzoak daude, arabiar estilokoak, hinduak... Eta, azkenik *El Principe* auzoa dago, oso eza-guna egin dena narkotrafikoagatik eta delinkuentzia handiagatik.

Ceuta urez inguratuta dago eta ikusteko asko du, era guztietako eraikuntza erlijiosoak, esaterako. Muino baten gainean dago alde zaharra eta han dau den bistak ikusgarriak dira. Maroko ikus daiteke, penintsula, Tarifa... Aitortu behar dut ez nuela Ceutari buruz ezer ezagutzen hona etorri aurretik. Abentura bat bizitzera etorri nintzen eta egia esan oso pozik nago hemen topatu dudanarekin.

Herri askotariko xakelariak hartuko dute parte Mintxeta Xake Txapelketan

Lehen Iriondo tabernan jokatzeko zuten xake txapelketa Mintxetako tabernan jokatuko dute orain, irailaren 27tik aurrera. Eta, leku aldatu ez ditzuten xakelariak uxatu; alderantziz. Zubiondo Xake Taldeak Iriondo tabernan antolatzen zuen txapelketak xakelari asko batzen zituen, 50 inguru jokatu zuten azken ekitaldian, 2019an. Taberna itxi behar izan zuten, baina, eraikina bota eta etxebizitza berriak eraikitzen dihardutelako. Txapelketak Mintxetan izango du jarraipena aurrerantzean, tabernaren laguntzarekin antolatu baitu Zubiondok I. Mintxeta Xake Txapelketa. Lehen edizioak harrera oso ona eduki du xakelarien artean eta plaza bat bakarrik gelditzen da libre, 49 lagunek eman baitute izena. Leku askotatik etorriko dira xakelariak, besteak beste: Mendara, Eibar, Sorluze, Deba, Azpeitia, Azkoitia, Urnieta, Zestoa, Elorrio edo Donostiatik. "Esango nuke ez dagoela Euskal Herri osoan halako parte hartzerik duen lagun arteko txapelketarik", nabarmendu du Mikel Leonek. Askok errepikatuko dute, bederatzita baitira lehen aldiz arituko diren xakelariak. Hori bai, izena emanda dauden 49 lagunetatik hiru bakarrik dira emakumeak. "2019an emakume bakarria zegoen eta orain hiru dira, kopuru horrek gora egiten jarrai dezala espero dugu. 2019ko txapelketan parte hartu zutenek oso pozik aritu zirela esan ziguten", esan du Leonek. Iriondon jokatzeko zutenean zuten formato bera edukiko du txapelketak. Maila desberdinetan banatuko dituzte parte-hartzaileak: lau maila izango dira, eta azkenengoak bi multzo izango ditu. Maila batetik bestera jaitsi edo igotzeko aukera izango dute. Txapelketaren arrakastaren arrazoiak bat mailakatzeko hori dela uste dute antolatzaileek, xakelariei euren pareko aurkariarekin lehiatzeko aukera ematen dielako eta beti delako sari moduko bat goragoko mailara igotzea.



Juniorren txirrindulari lasterketa, bihar

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak junior mailako txirrindularientzako lasterketa antolatu du biharko, irailaren 18rako. Gainera, taldeko hiru txirrindulari lehiatuko dira proban: Jokin Amorrosta, Eneko Ortega eta Aritz Esnaola. Azken biak, kadete mailan diharduten arren, nagusiagoekin lehiatuko dira. Lasterketa 16:00etan hasiko da eta ibilbidea honakoa izango da: Elgoibar-Bergara-Elgoibar-Bergara-Elgoibar-Azkarate-San Antolin-Elgoibar-Azkarate-San Antolin. Helmuga Mintxetan izango da, 18:15ak aldera.



Europako Mendietara irteera antolatu du Morkaikok

Mendi irteerak antolatzen hasi da berriro ere Morkaiko mendi taldea. Eta, bere jarduerekin hasteko, Torre Cerredora (2.650 metro) irteera presatuko dute irailaren 25 eta 26rako, Europako Mendietako gailurrik garaiera hain zuzen ere. Irailaren 25ean, zapatu goizaldean, irtengo dira Elgoibartik, eta lehen egunean Fuente De-tik Torre Cerredora igoko dira. Gaua Cabrones aterpetxean pasako dute mendizaleek. Domekan, bigarren egunean, Cabrones aterpetxetik Puente Poncebosera joango dira. Zehaztu dute irteera honetan parte hartzeko derrigorrezkoa dela mendian federatua egotea. Era berean, egingo duten ibilbidea "gogorra" dela ohartarazi dute eta sasoi onean egon behar dela. Morkaikok Eibarko Klub Deportibo mendi taldearekin elkarlanean antolatu du irteera hau eta hamabost lagunentzako lekua dago. Izena emateko bi modu daude: emaila bidaliz morkaiko@morkaiko.eus helbidera eta Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan, asteazkenetan, 19:00etatik 20:15era. Informazio gehiagorako: morkaiko.eus



▶ JOSE MARI ZIALTZETA

MENDIZALEA

77 urte ditu Jose Mari Zialtzetak, eta Mulacen (3.480m.) mendia igo du abuztuan. Egun batetik bestera egin zuen plana semearekin, eta Granadara abiatu ziren biak. Bi etapatan igo zuten mendia, eta pozik etorri dira, "oso pozik". Mendian ibiltzea gustuko du, eta horrek laguntzen dio sasoiari egoten. Inoiz ez da berandu gustuko erronkak burutzeko.

- AINHOA ANDONEGI -



Jose Mari eta Josu Zialtzeta aita-semeak.

"Semeak eramane zuten motxila soinean, eta nik, urteen motxila"

◆ Birritan pentsatu gabe egin zutenen semearekin plana. Nola izan zen?

Semeak esan zidan Sierra Nevada zihola Mulacen mendia igotzera, eta galdetu nion ea nik igotzeko modukoa ote zen mendi hori. Eskalatu edo antzekorik egin behar ote zen galdetu nion, eta ezetz esan zidan, orduak ibili behar zirela, baina konplikazio berezirik ez zeukala mendiak. Orduan berarekin joango nintzela esan nion, eta biok abiatu ginen Granadara. Abuztuaren 26an joan ginen, eta lehenengo egunean Granadan egin genuen lo.

◆ Iberiar Penintsulako mendirik altuena da Mulacen. Nola egin zenuten igoera?

Hilaren 27an Sierra Nevada joan ginen, autoz igo ahal zen punturaino, eta handik abiatu ginen oinez. Lehenengo egunean autotik aterpetxe batera arteko bidea egin behar genuen, eta hori izan zen agian gogorra. 12 kilometro ziren, baina bero egiten zuen eta 19:30ean geneukan afaria eta ordurako iritsi nahi genuen. Ondo egin genuen bidea, baina prisa puntu batekin. Hurrengo goizean, freskuran, abantatu ginen tontorrerantz, Elgoibarko sanbartolomeetako feria egunean. Ostatuko gizonak galdetu zidan ia zenbat urte nituen, eta 77 nituela esan nionean harrিতa esan zidan ea Mulacen igo behar nuen! Saiatu egingo nintzela erantzun nion.

◆ Saiatu, eta lortu!

Bai, lasai hartu genuen eguna. Eguraldi ezin hobea zegoen. Eguzkitsu zegoen, baina bero gehiegi ere ez zuen egiten. 2.000 metro inguruan zegoen aterpetxea eta 3.480raino igo ginen. 9rak aldera hasi ginen oinez, eta eguerdirako iritsi

ginen tontorrera. Hamarretakoa egin, eta beherako bidea hartu genuen berriro.

◆ Zer sentitu zutenen helburua bete zenuenean?

Satisfazio handia. Izugarri poztu nintzen, eta esango nuke semeak berak nik baino poz handiagoa hartu zuela. Ni lasai joan nintzen, gidari ona neukalako alboan. Semea mendian ibilitakoa da, eta banekien ondo eramango ninduela mendian gora. Ura soberan eramane genuen, eta jatekoa ere bai. Semeak eramane zuen soinean motxila, eta nik urteen motxila. Jaitsi ere ondo jaitsi nintzen, belaunak gogor ditut eta ez nuen arazorik izan. Mulacen puntatik hondartzaraino jaitsi ginen, 3.480 metrotik 0-ra. Motrilen hartu genuen bainua, itsaso zakarra zegoen, baina ez zion ardua. Granadan pasatu genuen gaua berriz, eta hurrengo egunean itzuli ginen Elgoibarrera, domekan.

◆ Nola egiten duzu sasoiari mantentzeko?

Euskal Herriko mendietan ibiltzea gustatzen zait: Ernio, Izarraitz, Aizkorri... astean behin geratzen naiz bi-hiru lagunekin eta hemen inguruko mendietan ibiltzen gara. Piriniotan ez naiz asko ibili, baina Aneto, Perdido, Annie, Hiru Erregeen Mahaia eta besteren bat igota ditut. Teiden ere egonda nago, hori da Espainiako mendirik altuena, baina hara funikularrean igo nintzen, horrek ez dauka meriturik. Turistentzat prestatuta dago hura.

◆ Aurrera begira, beste mendiren bat igotzeko harra piztu al zaizu?

Ez bereziki, baina ikusiko dugu. Agian egingo dugu beste bidaireren bat aurrerago. Mendian ibiltzea gustatzen zait, baina lasai, prisarik gabe. Mendia gozatzeko da, ez erlojuari begira ibiltzeko.

2022ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA



- **GAIA:** ELGOIBARKO BASERRIETAKO BIZIMODUA, OHITURAK ETA LANAK
- **HELBURUA:** Landa-eremuaren errealitatearen ezagutza sustatzea, baserritarren lanetan eta landa-eremuko bizimodu eta ohituretan arreta berezia jarrita.
- **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.
- **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- **LANAK AURKEZTEKO LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:
a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira: "Elgoibarko egutegia 2022" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira. Helbidea: Aita Agirre (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua.
b) Emailaz, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita (Tel.: 943 744 366).
- **ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2021eko urriaren 7ra arte.
- **SARIA:** Hamahiru argazki sarituko dira, bakoitzak 70 euroko bonua jasoko du.
- **LEHIAKETAREN OINARRIAK:** elgoibar.eus



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN

HH 0-1eko matrikulazio aldia irekita, irailaren 20tik urriaren 1a arte

Ikastola ezagutzeko bisita pertsonalizatuak egingo dira
(hartu hitzordua 943 744 441ean)



elgoibar ikastola



Informazioa eta izen-ematea: www.elgoibarikastola.eus
943 744441

Ordutegi zabala / Jai-zubietan eta oporretan irekita



ETXEBERRIA EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Etorri haundikua izan: Bertsoan puntuari legez heltzen diona izaten da etorri handikoa. Hortik kanpo, izan daiteke txantxei azkar eta egoki erantzuten diena ere.

Zabalik dago Tertuliak programan izena emateko epea



Euskaraz hitz egiteko erraztasunik ez dutenei laguntzeko sortu zuten Tertuliak egitasmoa 2001ean, eta aurten ere eutsiko diote egitasmoari, 20. urtez. Programaren oinarria euskaraz hitz egitea da. Lauzprobost laguneko taldeak osatuko dituzte, eta talde bakoitzean euskaraz ondo dakien lagun bat egongo da, taldea dinamizatzeko. Astean ordubetez elkartuko dira. Urrian hasiko dute ikasturtea, eta ekainean amaituko da. Interesatuak urriaren 8ra arteko epea dute izena emateko. Programa hau doakoa da.

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko: AEK euskaltegia (607 601 423), Udal Euskaltegia (943 742 731) eta Elgoibarko Izarra (943 741 626).

Musika Bandak kontzertua emango du domekan, plazan

Kultura Eguzkitan egitasmoaren barruan kontzertua emango du Udal Musika Bandak domekan, Kalegoen plazan. 12:30ean hasiko da emanaldia, eta Juanma Saezek zuzenduko du taldea. Hauxe da egitaraua:

1. Als Bandolers (Francesc Cerdá).
2. Danzas Vascas (Esteban Velez)
3. Brasiliana (Jan Van der Roost)
4. Abba Cadabra (Ulvaeus-Anderson)
5. Odilia (J. de Haan)
6. A la Bisbal, aplec D'argent (F. Cassú)
7. Juan Lope Ri (K. Tarragona)

Dultzaineroen diana, domekan

Elgoibarko dultzaineroak dieran irtengo dira domekan. 10:00etan hasiko dute kalejira Kalegoen plazan, eta herriko kaleak alaituko dituzte euren doinuekin.

Esker ona erakutsi die Udalak Idoia Ortega eta Gorka Alonsori, miniaturazko erraldoien erakusketagatik



Udaleko Kultura Sailak eskerrak eman dizkie Idoia Ortega eta Gorka Alonsori, miniaturazko 180 erraldoiak Elgoibarko herriari erakusteagatik. Joan zen barikuan zabaldu zuten erakusketa, eta inaugurazio ekitaldia baliatu zuten Kultura Saileko arduradunek origarri bana emateko. Irailaren 30era arte egongo da ikusgai Kultur Etxean, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Erraldoi eta buruhandien erakusketa, bestalde, Aita Agirre kulturguneko sarreran jarri dute, eta hori ere hilaren 30ean itxiko dute.

Heriotzari buruzko 'Hili' liburua aurkeztu du Uxue Alberdik


Uxue Alberdi idazleak eta Araiz Mesanza ilustratzaileak *Hili* izenburuko liburua sortu dute Elkar argitaletxearekin. Heriotzari buruzko liburu ilustratua da, eta haurren pentsatu dute bereziki liburua sortzerakoan, baina liburuaren ekarpena ez da haurrentzat bakarrik izango, heriotzaren inguruko galdera-erantzunak ez direlako inoiz erabakita geratzen. Astelehenean aurkeztu dute *Hili* liburua Donostiako Udal Liburutegian. Aurkezpeneko bideoa eta liburuari buruzko bideoa barren.eus webgunean dituzue ikusgai.



Rock-ak hartuko du bihar Garagartza

Bihar izango da aurtengo Gararock jaialdia, Garagartzan, 19:00etatik aurrera. Eguraldiaren arabera, San Agustinen edo plazan izango dira kontzertuak, eta aforoa desberdina izango da. Ez da sarrerarik behar, hala ere, eta iritsiera ordena zainduko dute. Jan-edana ere egongo da, txosna ez ezik food trucka ere ekarriko dutelako. Horren harira antolatzaileek eskatu dute afaltzeko ordutegia dibertsifikatzeko, ilara handiak ez sortzeko.

Musikariei dagokionez, hiru dira aurtengo gonbidatuak: Arima rock talde bizkaitarra (19:00), Amorante (20:30) eta Audience talde bizkaitarra (22:00). Azken orduko berriak jasotzeko: [facebook.com/Gararock](https://www.facebook.com/Gararock).



Bulego taldearen kontzertua Herriko Antzokian izango da

Kultura Eguzkitan egitasmoaren barruan Kalegoen plazan eman behar zuen kontzertua Bulego taldeak gaur zortzi, baina Kultura Sailak Herriko Antzokira lekualdatzea erabaki du, segurtasun neurriak bermatzeko, ikusmin handia sortuko duela uste baitute. Kontzertua



doan izango da baina, gonbidapena behar da. Gonbidapenak irailaren 20an eta 21ean jaso ahal izango dira, 18:30etik 20:30era, Herriko Antzokiko leihatilan. Pertsona bakoitzak, gehienez ere, lau sarrera eskuratu ahal izango ditu. Hilaren 24an izango da emanaldia, 19:00etan.

Mendaro Dantzan dantza-eskola ezagutzeko jardunaldia egingo dute bihar

Berrikuntzekin dator ikasturte honetan Mendaro Dantzan dantza-eskola, eta orain arteko eskaintzaz gain, 18 urtetik gorakoentzako dantza-fitness saioak emango dituzte. Jarduera hau eta gehiago ezagutzeko aukera izango duzue bihar, 11:00etatik aurrera, Azpilgoetan. 18 urtetik gorakoek erakustaldia izango da lehenengo, eta ondoren, 18 urtetik beherakoek egingo dute dantza. 12:45ean dantza garaikidean hartuko dute parte 12-17 urte bitartekoek. Goizean zehar sormen tailerrak egingo dituzte, 11 urtetik beherakoekin. Ikasturtea urrian hasiko da, eta izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko. Nahi duenak biharko ekitaldian ere izango du izena emateko aukera.

15 kultur ekitaldi hartuko ditu Herriko Antzokiak abendura bitartean



Irailetik abendura artean Herriko Antzokian egingo diren kultur ekitaldiak aurkeztu ditu Kultura Sailak. Guztira, hamabost jarduera izango dira. Iñaki Agirre zinemaldiarekin hasi dute ikasturtea aste honetan, eta zinemari lotuta, hainbat aldaketa egongo dira aurrerantzean: zapatuetako 22:15etako saioa berreskuratuko dute, eta bariku eta astelehenetan zinema 19:00etatik (pandemia garaiko ordutegia) 21:00etara pasatuko da berriz. Urriaren 22an, bestalde, lehen ikuskizun eszenikoa taularatuko dute; *Losers*, Aitziber Garmendia eta Jon Plazaolarekin, eta azaroaren 5ean Buhameak taldearen *Erik eta Win*. Familia osoarentzako ikuskizunei dagokionez, Gorakadaren *Zuhaitzak lantzen zintuen gizona*, GLU GLUren *Perez sagutxo*, Taupadaren *Argitxo Iratxo* eta Astrolabium Antzokiaren *Butterfly effect* ikusteko aukera eskainiko dute. Musikari dagokionez, azaroaren 26an kontzertua emango du Anne Etchegoyenek, eta abenduaren 10ean AMAKek. Ikuskizun eszenikoen eta kontzertuen ordutegiak 19:00etan mantenduko dira. Herriko Antzokiaren edukiera, printzipioz, % 50ekoa izango da, eta unean-uneko osasun-argibideetara egokitu da. Herriko Antzokiko edukiera kontrolatuko dute, eta publikoaren eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte.

LANA.....
Eskaerak

Orduka lan egiteko prest nago.
 ☎ 631 887 341 (Maribel)

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.
 ☎ 612 270 162

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 640 742 618

Lan bila nabil. Soldadura ikasketak eginda dauzkat. ☎ 632 508 182

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
 ☎ 612 462 120

Egueditik aurrera, adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Edozein lan egiteko prest nago.
 ☎ 693 967 256 (Patricia)

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzte. Orduka. Euskalduna naiz.
 ☎ 626 49 09 86

Adinekoak zaindu edo garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka nahiz lanaldi osoz. Baita etxeko langile moduan aritzeko ere. ☎ 632 116 534

Edozein lan egiteko prest nago. Sukalde laguntzaile lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzia.
 ☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
 ☎ 603 252 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan zein asteburuetan. Etxeko langile aritzeko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo gaixorik dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Eskaintzak

DBH1-eko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.
 ☎ 635 750 362

Asteburu eta jai egunetan jabetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar da.
 ☎ 659 539 861

Jabetxe batek sukalde garbitzeko langilea behar du.
 ☎ 659 539 861

ETXEBIZITZAK.....

Bi gelako buhardilla txiki bat alokatzen dut.
 ☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu)

BESTELAKOAK.....

Eskalatzeko sokak hartuko genituzke Elgoibarko Izarran. 943 74 16 26 / atxutxiamai@elgoibarkoizarra.eus

Estimu handia diodan betaurrekoentzako estutzea galdu nuen abuztuan San Roken, Norbaitek izango balu eskertuko nuke bertan agertzen den telefono zenbakira deitzea.
 ☎ 674 834 352

| | |
|--|---|
|  <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzko Finantza Administrazioen Kontseilua</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p> | <p>Bizilagun batek bizilagun guztiena den elementuren batean kalteak eragin baditu, bere esku al dago konponketa ordaintzea, nahiz eta berak mantentze-lanak egoki eginda izan bere jabegoan?</p> <p>Bizilagunak bere jabegoan mantentze-lan egokia egin arren, baliteke horrek kalteak eragitea elementu komunetan edo beste bizilagunengan. Beraz, kaltearen zergatia ezustekoa edo ezinbestean gertatu beharrekoa izan ez bada behintzat, bizilagunak konpondu beharko ditu bere elementuek gainontzekoetan eragindako kalteak. Bizilagunak bere jabegoa zaintzeko dagokion ardura hartu badu ere, kalteen konponketa bere gain hartu behar izatearen arrazoia da bere jabegoaren elementuren batek kaltetu duela hirugarren bat, nahiz eta nahigabe izan. Legea irakurrita, badirudi etxebizitzaren edo lokalaren jabea hirugarren bati eragindako kalteen erantzule izango dela, hutsegitea jabearenak soilik diren elementuen mantenuan izan bada. Baina ez da zehazki horrela. Izan ere, kasu hortan, ezin da jabea behartu bere jabegoa konpontzerakoan sortu diren kalteak ordaintzera. Beti ere, bere mantenu-lanak egin dituen behar besteko arreta jarri duela egiaztatzen badu.</p> <p>Aholkua: Ezinbestekoa izango da kasu bakoitzeko egoera aztertzea, izan ere, kasuistika askotarikoa izan daiteke eta ez da erraza kasu guztiei erantzun bateratua ematea.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p> |
|--|---|



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**neko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak zure 10. urtebetetzean, **Luken!** Egun polita izan zen asteartekoa. Etzekoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Ekain!** Muxu haundi-haundi bat familixakuen partez. Ondondo ospatu, mutil haundi!



Zorionak, **Aratz!** Bihar 7 urte! Muxu handi bat arreba Jare, lehengusu Ibai eta Lier, eta etzeko guztion partez.



Zorionak, **Garazi,** ostegunean 10 urte bete zenituelako. Muxu eta besarkada handi bat, etzekoen partez.



Benetako maitasuna keinu txikitetan, begirada arretatsuetan, usiekabeko lazitatean, mila hitz baino gehiago esaten duen presentzia isilean agertzen da. Izan zorionsu! Azpilikueta-Gurrutxaga familia osatzen dugunon partetik.



Zorionak, **bikote!** Gozatu bixarko egunaz eta zorionsu izan etapa berri honetan. Muxu asko piztatuon partez.



Zorionak kuadrillako politxenari! 20 muxu potolo kuadrillakuen partez! Asko maite zaitugu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BALAY 3KFE563MI HOZKAILUA

649 €
unitateko prezioa



- No Frost FullSkin Condenser
- 186 cm-ko altuera
- 326 litroko edukiera
- Altzairu matea, aztarnen aurkakoa



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

BARREN SAFE sozialetan

LAGUNAK

colchoneria textil hogar



- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioia
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

17 BARIKUA

19:00 Ikuskizuna: 'Buala'. 'Kultura Eguzkitan' egitasmoaren barruan. Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalako parkean.

18 ZAPATUA

11:00 Mendaroko dantza eskolako enkerak erakustaldia Azpilgoetan.

16:00 Juniorren lasterketa Elgoibarren. Valentin Romeraren oroitzarrea. Lagun Taldeak antolatuta. Mintxetan hasi eta bukatu.

19:00 Musika jaialdia: Gararock. Amorante, Arima eta Audience taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, Mendaron, Garagartzan. Eguraldi onarekin, Garagartzako plazan, eta euria egingo balu, San Agustin aretoan.

19 DOMEKA

10:00 Diana, herriko dultzaineroekin. Kalegoen plazan hasita.

11:00 Elgoibarko Memoriaren Ibilbidearen aurkezpena Aiastiako frontoian.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. *Kultura Eguzkitan* egitasmoaren barruan, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalan.

24 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'La modista'. Hai-zeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lila Emakumeen Etxean.

Iñaki Agirre zinemaldia (Herriko Antzokian)

'Hijos del sol'




17 barikua: 21:00

'El olvido que seremos'



18 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
19 domeka: 19:00
20 astelehena: 21:00

'Caminho Longe'



22 eguaztena: 21:00

'Queridos camaradas'



23 eguna: 21:00
24 barikua: 21:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 17 BARIKUA | 18 ZAPATUA | 19 DOMEKA | 20 ASTELEHENA | 21 MARTITZENA | 22 EGUAZTENA | 23 EGUNA | 24 BARIKUA |
|--------------------------|---------------------|---------------------|----------------------------|--------------------------|----------------------|----------------------------|----------------------|
| Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola |
| Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Arriola | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola |

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



I. URTEURRENA

Iñaki Salegi Albizu

2020ko irailaren 15ean hil zen, 56 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Zure kuadrilla




VII. URTEURRENA

Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzean. Asko maite zaitugu.

Etxeko sendiak




V. URTEURRENA

Jesus Ansola Arana

"Txanbolin"

2016ko irailaren 11n hil zen, 78 urte zituela.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***



VIII. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean,
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak






Naroa
Carrascosa
Iriondo,
10 urte,
Elgoibar



Irati De
Nova Vila,
11 urte,
Elgoibar

"Among us"



Maule
Bengoetxea
Maiora
9 urte,
Elgoibar

"Egun polit bat"



EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022 AUKERAK

DESCUBRE TODO LO
QUE TE OFRECE
EL EUSKARA



Matrikula zabalik

Ikastaroak

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun
astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.
Euskara ulertu eta euskaraz
bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak:
HABEren titulu ofizialak,
Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: Irailaren 1etik 24ra arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek

MATRIKULA ERDIA

Ikastaro amaleran **BEKAK** denentzat
(Baldintzak betez gero)

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Elgoibar: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu
kirol zaletasuna,
onena emateko
gaitasuna,
ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu
euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

*Euskadi,
auzolana*



G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZATEA

egoluz

ELEKTRIZATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

arroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Arroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA.S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**

